

Xoriño bat kantari

TXILLARDEGI



GAUZA bat aitortuko dizuet: leporaino nago! Txoriak gora, txoriak behera... eta pajaroak nagusi, bidenabar esateko.

Oraindik ere gure artean, eta gero eta bakanago, zorionez: «... txori bat phausatzen da, eta laster hasten da khandan»...

Leunkeriaz aski! Fed-up!

Egia da, aitort dut, zementotiki urrunduz gero, txorien torrotxioek iratzaritzen dituztela eskualdunak goiztiri herabeetan; eta, era berlean, ilunabarra mamitzerakoan, piztu bezala egiten direla zahuztiak. Txoriek berek ere, poetek bezala, eguzkia itzaltzerakoan, zerbit esan nahi balute bezala...

Baina horiek oro beraxkeriak dira, biguneriak, txatxukeriak. Txoriak akabatu egin behar dira, eta kitto. Bake saundua bazerretan, eta txori-kakarik ez kotxearren beruntan. Jakina!

Orainaxe da momentu ona belazeak eta harizaldeak garbitzeko.

Bart, hain zuzen, eta areago goizaldean, mordoka ikusi nituen ihiztari ausartak, beren xixpak besaigean. Txepetak, hormatxuriak, kardantxiloak, txantxangorri okaztagarri horiek, akaba ditzauden behin eta betirako!! Gure arbasoek, aztarnarik utzi gabe, moak lur honetara erazi zituzten bezala. Zerrikeria horiek hiltzea onena. Txori on bakarra, kaxuelan dagoena!

Hementxe daukat, Zorroagako bulego honetan jiltzaturik, Iparraldean erosi nuen postal bitxi bat: «Montreurs d'ours dans les Pyrénées». Bi hartz eder, hor nonbait bizirik harapatunik, soka batez estekaturik eta bezala muturrean ageri dira, txintxo-txintxo... Baina hori joan da: Ahuenmendia osoki garbitu digute ihiztari presteuk. Dozena bat bai eto hor gaindi?

Natura gizaratu egin behar da, animaliak oro sarraskituz. Ihiztariak herio-suhar ari zaizkigu zibilizazio-eginbide honetan jator.

Nik neuk ere, horretara, neure eskopeta erosi dut; eta saiatuko naiz asteburu hauetan mila bat txantxangorri nazkagarri horietakoak akabatzen.

Eta mokautxo bat hornitzeak adina haragirik ez badute, gaitzerdi: aski baita txantxangorriez gain, kilo bat baxarrun gorri jata.

Gezurrak hegoak luze

TXOMIN PEILLEN



GARAI batean eruditoez aspertzen ginduzten orain umibertsitari ezjakinek. Gure akats ta zorizak guztiak kanpotik datozelako abertzale zahar bazuen topikoak eta faltsuak gauditu behar genituzke, baina aurtengo kongresu batean, katedratiko bati entzun diot esaten Euskal Herrian orainarte ez dela euskararik erabili erakusketan. Denok behar gure kondairaren berri jakin holako hutsetan ez erortzeko.

Iparraldean behintzat —eta europar herrixumeak eskola bakarra hori zuelarik— dotrina ikasi da eta XVII mendean hasita euskaraz. Hori ere erakusketan zuten. Beraz XVII eta XVIII mendetan Belapeire ta Matster zuberotarren hitzak sinhetisi behar baditugu zuberotarek euskara irakurtzen eta idazten zuten (ikus pastoralara zaharren manuskriptoak). Eskola hori ordea motza zen eta etxe bakoitzean bat edo bi hutziten zituen.

Hemeretzigarren mendean —errege ta enperadoreak Frantziak agintari zuedeno— erakusketiza elebidana eman da Iparraldean: bakarrik errepublika garaietan eta 1880etik goiti. Jules Ferry-ren legearekin euskara debekatu zen. Urrezko garaia izan zen Napoleonek IIren bigarren inperioa deritzalona, orduan Zuberorako bakarrik hirur eskola liburu elebidun egin baitziren —eta gramatika elebidunak hirur edizio izan baitzuten—. Ez dugu Sabino Arana eta bere misleak eguruki Iparraldean euskararen erabiltzeko hau da egia, ez besterik, baldin batzuen-tzat Iparraldea Euskal Herria bada.

EL INDEPENDIENTE

Etorkizun zaila Israelentzat

Harreman berri honetan, Israelek 1967tik okupatuta dauzkan lurraldeak dira gakoa. Israelek hemendik aurrera Jordaneko mendebaldeko ibaiertza ez kontrolatzea, ez eta bertan bizi diren milio t'ardi bizianleak ere, da EEBBen politika. Yitzaak Shamir lehen ministroak eta Gobernuko beste askok, aldiz, konpromezua hartu dute lurralde horiek anexionatzeko, pixkanaka gauzatuko den prozesu geldiezinean. Israeli aukera zaila ari zaio jartzen: okupatutako lurraldeei eutsi edo estatu Batuen laguntza.

ANTHONY LEWIS

Herald Tribune

NATOn etorkizuna European

NATOK Gerra Hotza irabazi zuen, baina ez dago garbi nola irauango duen garaipena eta gero. (...)

Azaroak 7 eta 8 Errotan NATOK egingo duen gailurrean parte

HEMEROTEKA

hartuko duten 16 liderren arteko elkarriketetan galdera nagusi bat ageri da, nahiz eta agendan ez dagoen: zenbat denboran izango du te Estatu Batuek segurtasun europarreko giltza? (...)

Europar batzuek, Frantzia buru dela, amerikarrekiko menpekotasuna gauza ona dela utste dute, edo behintzat albo batera utzi ezin den beharra dela, gustokoa izan ala ez izan. Beste batzuek, alemaniarrek eta britainiarrek kasu, amerikarrekiko loturak askatzen hasteak hondamendira eramango dituen beldur dira. Horietako batzuk, gainera, amerikarrek Europar betirako geratu nahi ez omen dutelako kezkatzen hasi dira.

CRAIG R. WHITNEY

EL MUNDO

Merezi, merezi

Merezi dugun telebista dela gurea, aditu nion lehengo astelehenean Amatiñori, eta benetan larritu egin nintzen, ez baitnikien zer egin nuen zigor bibliko hori nire gainera erortzeko. (...)

Amatiñok, ere agian, pentsatuko du. Euskal Telebista ikusten dugunok haren zerbitzuan gaudela, alderantziz izan beharrean. Eta nola berak mesede egin digun



FERRERES / LA VANGUARDIA

halako programazioa antolatzen, bada isiltzea hobe dugula. Pentasatu ere egingo du herri honek merezi duen telebistaren buru bera izatea herri honek merezi ez duen zerbitu dela. Baina behin ere ez du pentasatuko merezi duen programazioa duela telebista honetako buru denak.

FELIPE JUARISTI

EL PAIS

Abstentzio jasanezina

Walesak esan zuen Polonia agian «gubernazina» bihur daitezkeela. Beharbada politika au-

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Gauzak argitzeko asmoz

Lehenengoz, idazterakoan Xabier Fernandez bakarra (eta nahikoa esango nuke) naizela azpimarratu nahi dut, X.A.k dituen mamuak aldendu arren.

Nire aldetik eztabaidari bukaera emateko asmoz (X.A.k eta EGUNKARIAK kontrakoa gura ba dute, ba aurrera) zenbait gauza argitu nahiko nuke:

- 1.- Norbaitetik ardura politiko-soziala baldin badauka gazterien pasotismoaz, abstentzionismoaz edota, besteak beste, eskumarako joeraz jabetzen dela, baina X.A.k aipatu zituen izenak eta siglak ote dira errudunak?
- 2.- Preso kopurua, politikoen soldatak edota drogarren eragina gora badoaz, izenak eta siglak dira errudunak?
- 3.- Marxismoaz ez nuen fisik ere esan, baina eztabaida polita suertatuko litzateke.
- 4.- Euskara aipatzen zuen

X.A.k. Izen eta siglak elebitasunaren tranparen errudunak dira? AEKren diskriminazioa bultzatu dute izen eta sigla horiek? Kalean gaztelania nagusi bada, zoritxarez oso urrun joan barik «Kabi» Goitiak, KASEko partaideak, hain zuzen, erakutsi zuen euskararekiko konpromezua da erruduna?

5.- Behintzat ados nago X.A.rekin HBrena bide bakarra dela, ezker abertzalean behintzat, eta berriz diot: «Gutziok gara beharrezkoak» (hots, ez dagoela inor sobran nahiz eta X.A.k kontrakoa esan) eta inozo ez naizenez gero, ez dut zerurik espero. Beraz, noski ez ditudala bertan sartzen amnistiaren kontra edo preso sakanaketaren alde daudenak; naturaren alde autobidea Estatuaren indarrarekin inposatu nahi dutenak, promotore handiek erakitzen dituzten etxebizitzak garestien alde daudenak eta, demagogia versus demagogia, euskaldunon botere zibila espainiar Estatuaren botere militarren gainetik egon behar duela onartzen ez dutenak.

6.- X.A. berak, nire ustez

behintzat, argi utzi du HBren kanpotik egindako hausnarketak direla (eta eskubide osoz gainera), baina, berriz diot ere, kanpotik izanda ere gaizki deritort horretan ez bait dago X.A.k hainbeste goratzen duen zabalatasuna eta indar batuketa. Izenak zikintzen saiatzea oso erraza da, X.A.ren eskutitza lekuko, baina edozein erakundearen betoa jartzeko edota gauzak hobetzeko barruan egotea ezinbestekoa da.

7.- Eta bukatzeko, militanziaz, kritika eta autokritikaz, hauteskudeen garrantziaz, sektore berriak erakartzeko eraz, gazteriaz, herri mugimenduz, autodefinizioa eta independentzia lortzeko eraz edo borroka armatuz hitz egin nahi bada, nire ustez X.A.k erabilitako deskalkifikazio pertsonala eta sasi-politikoak ez dira terapiarik onenak, izugarritzko zalantza sortzen zait eta: ni soberan nago? Zure egia santua (nirer bezala, noski) esaduz arren eta gero, pertsonalismo gabe, eztabaida dezagun, beharrezkoa zaigu eta.

XABIER FERNANDEZ
Bilbo

PERTSONAIA



Yasser Arafat

Madriken Bake Konferentzia ea askatzen den bide hertsia ahalegintan dabi! Arafat borrokalari sutsu erabat baina OLP ez ai da joango berriro ere eskubideak eskura gabe.

ABEL ENBEITA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Zuzendaria:

PELLI OZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZUPEJENDI
LUZIAN ETXEZAHARRETA
INAKI URU...

Kontseilari Ordezkaria:

JOXE MIEL ZUMALABA

Publizitatea:

KORNELIO ROTETA

Gerentea:

INMA GOMILA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza sozila, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1, / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industriaidea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia, / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11